

KINCHELOE, J. L., STEINBERG, SH. R. & VILLAVERDE, L. E.  
(2004)

*Repensar la inteligencia.* Madril: Morata

Hezkuntzaren Psikologiaren eremuan azkeneko hamarkadetan indarrean dagoen kognitibismoari kritikatu ohi zaio gizakiaren ikuspegi konplexuago batekin, bere historian eta sozialki eraikiz joan den izaki gisa, erlaziorik ez izatea eta formulatzen dituen galderak gidatzeko ikuspegi demokratikoaren falta. Kognitibismoaren oinarrian Piagetek definituriko eragiketa formalen pentsamendua gizakiaren kognizioaren maila altuena irudikatzen duelaren ideia dago, horregatik aditu askok pentsamendu honen sustapena eta neurketaren alde egiten dituzte esfortzu psikometrikoak. Aldiz, teoria kognitiboen eraikuntzan jokoan dagoen dinamika kulturalen ez da erreparatzen, ezta suposamendu hauek norik kaltetu eta saritzen dituzten dinamika politikorik ere ez da aztertzen.

Kritika honetatik abiatuz Shiley Steinberg eta Joe L. Kincheloeren teoria postformala sortzen da aldaketa pedagogiko eta curricularrak gidatzeko. Autore hauek, gizarte praktika eta gizarte teoriaren eremuan berriro pentsaraztea proposatzen dute, hau da, mundu soziala eta historikoa kontutan hartzea aldarrikatzen dute. Beraz, ikuspegi postformalak (maila, arraza, etnia, generoaren-gatik) baztertuak ohi izan diren gizakiak barne hartzen dituzten ikuspegietan enfasia egin, indarrean dauden ideologiaren tirania zalantzan jarri eta gizakiei arazoak eta zientziak ezarri dieten mugak deszifratzeko esfortzua egiten du.

Hezkuntzaren Psikologiaren birkontzeptualizazio hau *inklusioaren* ikuspegi demokratiko batean oinarritzen da, indarrean dagoen kulturaren bitartez soilik «besteak» ikusteari uko egiten baitio (askotan txuri, europar, mendebaldear, gizonezko eta maila ekonomiko ertaina edo altua duten per-

tsanak). Gizakia «gure arauetatik» gertu dagoen neurria oinarrizko irizpidetzat erabili beharrean, hau da, ezberdintasuna defizita balitz, garapen kognitiboaren eredu alternatiboak erabiltzeko aukera ematen du, lehen ezinduak bezala bazterturiko gizabanakoak kontutan hartuz. Ondorioz, postformalismoaren arabera «adimena birpentsatzeko» erabilgarriak diren ikuspegi teorikoak, hauek dira: Vygotskiren psikologia, ikuspegi neo-vygostkiarra, Deweyen pedagogia progresista, Freireren pedagogia kritikoa, ikerketa kulturalak, estrukturalismoaren ondorengo psikoanalisi eta Gardneren teoria. Tradizio guzti hauek kognizioa eta adimena modu konplexu eta testuingurukoan ulertzeaz aparte, ikaskuntza eta irakaskuntza moldeatzen dituen baldintza psikologikoak birpentsatzen laguntzen digute.

Ildo honetatik, liburu honetan biltzen diren autoreen lanak hezkuntzarekin zerikusia duten arazo ugariak aztertzen saiatzen dira. Besteak beste, adimena, garapena, gorren hezkuntza eta irakasleriaren prestakuntzari buruzko analisi kritikoak eta alternatiboak aurki daitezke. Azpimarragarria da, egileek kritika ideologiko orokorretan geratu beharrean urrunago joango direla, gelako praktika eta irakasleen heziketara hurbilduko baitira.

A. Ayerbe

BIGGS, J. (2005)

*Calidad del aprendizaje universitario*. Madril: Narcea

Liburu honek unibertsitateko irakasleriaren irakaskuntza-jarduera hobetzeko eta aldi berean ikasleen ikaskuntza hobetzeko tresna baliagarri sorta bat aurkezten dut. Obra hau gisa honetako galderei erantzuten saiatzen da: Nola bilakatu daiteke eskola magistrala ikaskuntza-esperientzia interesgarri eta aberatsagoa? Nazionalitate desberdinetako ikasleei nola irakatsi arrakastaz? Nola lagundu irakasleei beren praktikaz hausnartzeko eta aldi berean praktika hori hobetzeko? Ba al daude ikasleen ikaskuntzaren konplexutasuna nabarmentzeko balio duten ikasle-kopuru handiko ebaluatzen metodoak? Nola erabili metodo horiek? Egileak dioen bezala errezeta magikorik ez dago baino ikas-irakaskuntza prozesuei buruzko ezagutza maila zabalak izan ez gero irakasleek beren praktika hobetu dezakete.

Lehendabiziko kapituluak unibertsitateko irakaskuntzan azken urteetan izandako aldaketen inguruko gogoeta agertzen du. Gogoeta honetan, besteak beste, unibertsitateko geletan eman den masifikazioa nabarmentzen da. Bigarren kapituluak ikasleen ikaskuntzaren eraikuntzari ekiten dio, «lerrokatze eraikitzailea» izeneko teoria edo sistema aurkeztuz.

Hirugarren, zortzigarren eta bederatzigarren kapituluak ikasleen ebaluazioari buruzko kapituluak dira. Hirugarrenean konkretuki, «SOLO

(Structure of Observed Learning Outcome» izeneko taxonomiaren aurkezpena egiten da, hau izanik Biggs-en ekarpen nabarmenena. Beste bi kapituluetan ebaluatzeko tresna eta ereduaren arteko aurkezpena egiten da.

Laugarren, bosgarren eta seigarren kapituluaren mamia irakaskuntza egokia burutzeko giroan datza, alegia, zein baldintza edo eszenatokiaren eman beharko lirateke irakaskuntza, irakaskuntza hori eraginkorra eman ahal izateko. Honekin batera irakaskuntza eraginkor hori lortzeko hainbat teknika aurkezten da.

Zazpigarren kapitulua nazioarteko ikasleei irakaskuntzara dedikatua dago. Liburua amaitzen da, adibide batzuk eta inplementaziorako iradokizun batzuk emanez..

*K. Santiago*

ALVAREZ-URIA, F. & VARELA, J. (2004)

*Sociología, capitalismo y democracia*. Madril: Morata.

Mendebaldean Soziologia nola sortu eta instituzionalizatu den aztertu nahi du liburu honek, beti ere prozesu historiko baten baitan. Soziologia, demokrazia eta kapitalismoaren arteko harremanak aztertzen ditu; izan ere, elementu hiru horiek elkarrekin bizi izan dira, era gatazkatsu batean, mendebaldeko herrialdeetan azken bi mendeetan.

Egileak Madrileko Complutense Unibertsitateko irakasleak dira, biak ala biak: Fernando Alvarez-Uria Soziologiakoa, eta Julia Varela Informazioaren Zientziakoa. Gainera, aldi berean, 90eko hamarkadaraino aritutako La Piqueta argitaletxeko testu subertsibo eta zirikatzaileetako editore eta paratzaile izan dira. Datua ez da ahuntzaren gauerdiko ezutula, eta jarduera horrek ospe eta izena eman die Unibertsitatekan kanpoko bestelako esparruetan.

Egileen asmo argia, teoria soziologiko klasikoa, eta zientzia gisa osarazi eta gauzatu duten tradizio sozialak soziologoaren eskura jartzea eta ezagutaraztea da. Horren bitartez, teoria soziologikoan gehiago sakondu eta belaunaldi gazteei transmititu ahal izango dute. Xede ideologikoa da, egileek Soziologia mundu hobea baten bila abiatzeko ezagutza-tresna gisa hartzen dutelako, betiere baztertuen eta jazarpen egoeran daudenen alde.

Liburuaren eta bere asmoaren oinarrian azken urteotan burututako zenbait batzar eta foroetako parte hartzea dago, bereziki 1996an *Neoliberalismoa vs. Demokrazia* izeneko Kongresua, eta 2000.eko azaroan *Soziologia eta informazioari* buruzkoa, biak ala biak Madrilen. Gure gizarte modernoek gainean dituzten hiru arazo larri objektibatzeko. Izan ere, egileen aburuz ez dira auzi berriak baina, kode soziologikoaren krisia dela eta, areagotu egin omen da:

1. Berez merkantilizagarriak ez diren ondasunen merkantilizazio gero eta nabarmenagoa, lurra eta gizakiak esaterako;
2. Botere politikoaren oligarkizaziorako joera;
3. Informazioaren eta informazio-agentzien metaketa, eta manipulazioa.

Beraz, teoria soziologikoaren genealogia da liburuak ekartzen diguna. Análisi-kategoria nagusi gisa, gatazka soziala darabilte egileek, hara, konstituzio demokratikoen eta desoreka eta ekonomiko, sozial eta ekonomikoek ezaugarritzen duten bizitza sozialaren egunerokotasunaren artean zabaltzen den tarte. Goian aipaturiko kategorian oinarrituta, honako galderari erantzuten saiatuko dira egileak: antolamendu sozial demokratikoak eratu al dezake gizarte kapitalista konplexu baten garapena?

Galdera horri 11 ataletan erantzuna ematea da liburuaren xedea, 3 une historikotan egituratuta. Lehen zatiak, lehen une historikoak pentsaera soziologikoaren sorrera azaltzen du, XVIII mendearen bukaeran, Antzinako Erregimena hankaz gora jarri eta demokraziaren garapenaren oinarriak jarri zituzten iraultza ekonomiko eta politikoen garaian.

Bigarren unea Soziologia jakintza batez ere unibertsitario gisa instituzionalizatzeko prozesuari dagokiona da, Pariseko Komunitate 1929ko Depresioaren arteko urteetan gertatua.

Hirugarren eta azken unea XX. mendearekin batera hasi zen, paradigma funtzionalista Estatu Batuetan eta Europan eredu nagusi bihurtu zenarekin batera; alabaina, aldi berean eta neurri batean bederen mugimendu hari kontrajarrita, Soziologia Kritikoa berpiztu zen, batez ere Europan, klasikoak berreskuratu eta eskaera sozialei erantzuna ematen saiatu zenean.

Finean, egileek mende eta erdiko bidaia luzean murgiltzeko gonbitea egin digute, hara, teoria soziologikoen historia kilikagarri eta korapilatsuan.

*M. Unamuno Plazaola*

GROSS, J. (2004)

*Necesidades educativas especiales en educación primaria*. Madril: Morata.

Liburu honen bidez, Jean Gross autoreak Lehen Hezkuntzaren arloan ager daitezkeen behar bereziei buruzko azterketa sakona egiten du, azterketa horren ondorioz aipatutako behar horiei erantzuteko moduak ere eskaintzen dituelarik. Behar berezi horien artean, batez ere jarrera arazoak, hizkuntza eta matematikaren arloetan zentratuko da kapitulu desberdinetan zehar.

Egungo ikerketa eta araudi demokratikoenek defendatzen dutenez, hezkuntza behar bereziak ohiko geletan atenditu behar dira, eredu pedagogiko barneratzaileen markoan. Liburuaren irakurketaren bidez ikus dezakegunez, lehenengo kapituloan egungo behar bereziei buruzko irizpideak aztertzen dira, behar berezi horien izaera bera eta horiek aurkezten dituzten pertsonen buruzko azterketa eginez. Hori abiapuntutzat hartuz, hasiera batean aipatu den moduan, liburuaren egileak ikasle bakoitzaren beharrei erantzun egokiak eskaintzeko moduak azpimarratzen ditu, eskolarako orokorrean egin beharreko araudi eta horren barruko puntuetaz ere hitz eginez. Beharrek tratatzeko moduetaz gain, eta logika bati begira suposa daitekeen moduan, behar horiek identifikatzeko moduak ere aztertzen ditu, ondoren egin beharreko ebaluaketei buruzko ideiak emanez.

Autoreak berak aldarrikatzen duen moduan, irakasleriaren papera ezinbestekoa da, ezagutza eta trebetasunak eguneratuta edukitzeaz gain, ikasle bakoitzaren balioa eta gaitasunei buruzko jarrera baikorra erakutsi behar baitu; eskaintako jarrera eta konfidantza horrek gela giroan ere ondorio positibo garbiak edukiko ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu eraginkorrago batean aurrera eramatea bermatuz, eta bide batez, ikasleekiko bazterketa edo marjinaziorik egongo ez dela ziurtatuz.

Liburu honen irakurketak behar bereziak erakusten dituzten ikasle eta baita horien familien konfidantza indartzeko aukera suposa dezake; konfidantza hori batez ere irakasleriarekikoa izango litzateke, azken finean irakasleek gero eta prestakuntza hobea erakutsi beharko bailukete beren gelen barruan ikasle guztiekin ahalik eta lanik hoberena egin ahal izateko, lan horretan inorekiko marjinaziorik erakutsi gabe. Hain modu errazean baieztatu daitekeen honek, noski, atzean lan, konpromezu eta eginkizun desberdin asko dauzka, eta irakasleak dira horietan gehien saiatu behar dutenak.

Beraz, ikus daitekeen moduan, lehen hezkuntzaren arloan aritzen diren horientzat ezezik, hezkuntza arloan aritzen garen guztiontzat ere baliozko irakurketa baten aurrean gaude.

*I. Camino*

ZABALZA, M.A. (2005)

*Diarios de clase. Un instrumento de investigación y desarrollo profesional.* Madril: Narcea

Hezkuntzazko profesionala gisa egiten denari buruz idaztea, jardunbide pertsonalaren kalitatea hobetzeko prozedura oso egokia da, halaber, irakaskuntza-funtzioa lanbidezko garapenerako metodo on bat. Jarduera hau

ohizkoa denean «urruntze» era bilakatzen da. Urruntze honek gelan eta ikasleekin norberak ekiteko era, perspektibaz behatzea ahalbidetzen du.

Liburu honetan egunkariak idazteko eta erabiltzeko garrantzia nabarmentzen du egileak era gogoetatsuz, honetarako adibide praktiko ugari erabiltzen dituelarik. Eta hau guztia bai lanbidezko formazio-prozesuan, bai eguneroko jardueraren ikerkuntzan.

Liburuak, oharrak hartzeko, gelako egunkaria elaboratzeko, egunkariaren edukiak ebaluatzeko eta konklusio egokiak ateratzeko prozesua deskribatzen du era zehatzean helburu garbi hauekin: ikasleen ezagutza hobetzea eta eskola-praktikaren hobekuntza.

Lehendabiziko kapituluan egunkariaren izaera aurkezten da. Bertan egunkaria zer den agertzen den eta bere ezaugarri garrantzitsuenak. Beste atal batean egunkari-motak aurkezten dira, narratiborako erabilitako modalitatea irizpidea hartuz. Azkenik egunkariaren erabilpenerako esparru batzuen deskribapena egiten da. Konkretuko ondorengo lau esparruak: irakasleen «pertsonal» dimentsiora iristeko bidea gisa, norberaren dilemak esplikatzeko bidea gisa, irakaskuntza-prozesuak ebaluatzeko eta etengabeko prestakuntzaren garapenerako.

Bigarren kapituluak egunkaria ikertzeko tresna bezala azaltzen du. Egunkaria ikerketa kualitatiboetan maiz erabiltzen den tresna da eta bere erabilpena garrantzitsuenen artean, irakasleen pentsamenduari buruzko datuak edo informazioa lortu nahi duten ikerketetan dago.

Hirugarren kapitulua da liburu honen atal nagusia eta mamitsuena. Bertan, esperientzia eta adibide ugariaren bitartez, egunkariaren erabilpen desberdinak azaltzen dira, egunkariaren osatze eta analisiari tarte berezia eskainiz. Azken atal hau, alegia, egunkariaren osatze eta analisiari dagokiena osatua geratzen da epilogoan, non egileak egunkaria idazteko eta analitzatzeko hainbat iradokizun eta urrats eskaintzen ditu.

*K. Santiago*

RESINO, C. & ENA, B. (2004)

*Informática Aplicada a la Gestión de Datos*. Madril: Thomson.

Eskuliburu formatuan idatzita dagoen lan honek, hainbat ofimatika tresna praktikoren erabilera azaltzen digu, besteak beste, Office 2000 paketearen inplementatuta daudenak. Gaztelaniaz idatzita dago eta 15 gaiak, egitura berberaz, osatzen dute. Horrela, ideia orokorrak aurkezten ditu, xehetasunak ondoren eta tarteka, erabilera praktiko batzuk ere bai. Gai bakoitzaren amaieran, ariketa bideratuak aurki ditzakegu. Dena den, horien

ebazpenak ez ditu ematen. Azkeneko gaian, ariketa praktiko luze bat zehazten da.

Oro har, irakurleari liburu hau arina irudituko zaiola ezan genezake, Windows-eko leihoak nahiz elkarrizketa-koadroak azalpenetan agertzen direlako, batez ere.

Windows ingurunearen orokortasunak lehenengo gaian azaldu ondoren, Word lantzen du beste 4 kapitulutan, oinarrietatik hasita, formatuak, bintak, taulak, irudiak eta testu orrazketa garatuz. Excel programak beste 4 kapitulu betetzen ditu. Sarrera, formatuak, formulak, funtzioak eta grafikoak osatzen dituzte gai hauek. Access, berriz, hurrengo 3 gaietan argitzen da; datu-baseak zer diren eta, era berean, taulak, eremuak, loturak, indizeak, kontsultak, formularioak eta txostenak lantzen dira. Horretaz gain, Power Point aurkezpenak egiteko tresna, gai bakarrean agertzen da, testua, marrazkiak eta grafikoak nola tartekatu azalduz. Azkenik, gai banatan, Internet eta Outlook programen oinarriak; lehenengoan TCP/IP protokoloa eta erabilerak daude, baita Word bidez Web orrialdearen sortzea ere, eta besteak posta elektronikoa, bere ohiko menuak eta aukerak aurkezten dizkigu.

Laburtzeko, liburuan tamainaren arabera eta azaltzen duen gai mota zabalak ikusita, hastapenak baino ez dituela azaltzen pentsa liteke. Askotan, ordea, behar adinako maila du, ikuspegi egoki baten bidez, eskemak eta aginduak baino ez dizkigulako eskaintzen. Erabiltzaileen zalantzak argitzeko edota autonomia bihurtzeko, aukerakoa dela esan beharko genuke.

*L. Joaristi*

BEANE, J. A. (2005)

*La integración del currículum.* Madril: Morata.

Liburu honen egilea, James A. Beane, katedraduna da Disziplinarreko Curriculumari buruzko Ikerketa Zentruan, Ameriketako Estatu Batuetako National-Louis University-n. Liburuko gaiaren gainean eskarmentu handia du, nahiz eta bi liburu baino ez dituen gazteleraz merkatuan: *Escuelas democráticas* izenekoa da bestea, Michael W. Apple ospetsuarekin batera idatzia, eta, hauxe bezala, Morata argitaletxeak kaleratua.

Hezkuntza sistema nagusiek ezagutza era zatikatuan eta elkarren artean loturarik gabe aurkeztera jo izan dute. Hezkuntzaren azken mendeetako Historiaren luze-zabalean aztertzeke lana hartu duenak, badaki nagusi izan dela joera hori eta, ondorioz, lege, programazio, curriculum-eredu eta beselako dokumentuetan behin eta berriz edukiak ikasgaien logikaren arabera antolatu izan direla. Alabaina, XX. mende hasierarekin batera, berrikuntzak

curriculumaren arlorak ere iritsi ziren, eskolako edukiak eta jarduerak egituratzeko disziplinarreko moldeak garatzea ekarri zuen, ikasleek kultura era hobea eta, batez ere, esanguratsua batez eskura ahal zezaten.

Horixe da esku artean dugun lanaren abiapuntua. Eta, Salvatore Quasimodo poeta italiarrak zioena egia bada («Nonbaitekoa eta noizbaitekoa izatean... horretan datza poesia gizatiar eta egiazkoenaren gakoak»), hortaz, bada, ez da bigarren mailakoa ere izango egilearen nondik norako biografiako-ideologikoak, liburuaren sarreran azaltzen dituenak: Izan ere, bere ama joera progresistako maistra izan zen mende hasierako eta erdialdeko hamarkadetan, eta eskolaz gain, etxean ere, senarrarekin batera metodo berberak erabiltzen saiatu ziren egilearen eta anai-arreben heziketan. Aldiz, 70. eta 80.ko hamarkadetan egilea Unibertsitatera iritsi zenerako, ikuspegi kontserbadoreak Estatu Batuetako gizartearen esparru gehienetara hedatuta, oso baztertuta aurkitu zituen etxean txikitan bizi izandako joerak.

Testuinguru horretan, bada, hezkuntza-eredu progresistek erasoaldi kontserbadorea jasaten ari den honetan egiazko izaera demokratikoa duen hezkuntza-eredua proposatzeko egilearen asmo eta saioa da; gorago esan bezala, kontuan hartzekoa da Estatu Batuetan idatzia dela liburuak, eta hango dikotomia politikoak azalduko du hein handi batean liburuaren ukitu ideologiko garbia.

Egileak curriculumak integrazio maila handiago baterantz bultzatu duten proposamenen gaineko ereduaren historia biltzen du, eta jaso dituzten kritiken berri ematen du Bere aburuz curriculumaren integrazioa ez litzateke soilik «ikasgaien berrantolaketa» hutsa; horren ordez, curriculumaren integrazioaren teoria ikuspegi global gisa zurrunago bat defendatzen du. Zenbait ikastetxetan garatutako adibide ugari dakartza curriculumaren integrazioaren eta ezagutza-arloen arteko harremana azaldu eta ilustratzeko asmoz. Beenen aburuz, curriculum integratuaren ikuspegitik, lorpenik handiena gazteek beren ikasketa-esperientziak beren esanguratasun-eskemetan integratzea litzateke, euren buruen eta munduaren ulermenean aurrera egiteko; horri esker ezagutza modu organikoan erabili ahal izango dute, eta ez artifizialean.

Liburuak zuzenki ataletan banatzen da, hiru lehenak teorikoagoak dira curriculumaren integrazioak barne hartzen dituen alderdien ikuspegitik (esperientziaren integrazioa, integrazio soziala, ezagutzen integrazioa, eta integrazio curriculum-diseinu gisa ulertuta), hala nola integrazioaren historia labur bat. Laugarren eta bosgarren ataletan curriculumaren integrazioaren esangura sakona aztertzen du egileak, ikuspegi politikoak eta soziologikoa pedagogiarekin bat eginez. Bide horrekin aurrera eginez, seigarren atalean gizarte benetan demokratikoetan nolako Hezkuntza? Galderari erantzun nahi dio. Azkenik, zazpigarrenak, curriculumaren integrazioak gaur egun aurrean dituen erronka nagusiak ditu hizpide.



Azkenik, merezi du liburuaren beste bi meritu aipatzea: irakurterraza eta atsegina iruditu zaigu, hurbiletik idatzia eta adibide eta pasadizo ugariz jantzia delako. Gainera, laburra ere badenez, eta esaera herrikoitari zin egin behar badiogu, bi bider on.

*M. Unamuno*

KLENOWSKI, V. (2005)

*Desarrollo de portafolios para el aprendizaje y la evaluación.* Madrid: Narcea.

Ebaluatzeko eta ikasteko prozesuen inguruan kokatuta agertzen zaigu honako liburua, ebaluatzeko era bera eraginkorra baita ikasteko eran; besterik ez bada, horixe ematen baita ikasleek irakasgaia gainditzeko —eta ez ikasteko— ahalegina egiten dutenean.

Liburuaren sarreran dugu «portafoliosa» zer den, nola erabili, zergatik, zertarako eta ohikoa denez, liburuaren nondik-norakoa. Zazpi ataletan dago egituratuta: lehenengoan «portafoliosa» erabiltzearen posibilitateak planteatzen dira; bigarrenean, oinarritzko prozesuak «portafoliosa»ren garapenean, autoebaluaketa, lankidetzeta, solasaldiaren balorea... lantzen dira. Horren segidan ebaluaketaren metodoa eta bere kontzeptuak eta, halaber, ebaluaketa motak aurkezten dira hirugarrenean. Hala ere, ebaluaketa era berri bat erabiltzen denean —portafoliosa gurean— beti kontutan hartu behar dira izan ditzakeen ahulguneak, arazoak eta arriskuak; hain zuzen, lau-garren atalak deskribatzen dituenak.

Horrela atal biziki interesgarri bati ekiten dio, bosgarrenak kasu baten azterketa planteatzen baitu: portafoliosaren metodoa irakasleen prestakuntzarako hasierako ikasturtean erabilia izan zen, ikasketa eta ebaluaketa modu eraginkorragoa lortzeko asmoz. Horren kontaketaz gain, gogoetak egiten dira ikaste-prozesuaren inguruan eta prozedura, praktikak eta erabilitako baliabideei buruzko ikuspuntuak eskaintzen dira ere. Izandako esperientziaren inguruko gogoeta interesgarriak gehitzen dira baita halako ebaluaketa sistema martxan jartzeko kontutan hartu beharreko erreferentziak.

Portafoliosaren erabilera zeintzuk klabetan oinarritzen den eta horrekin lotutako prozesuei buruz jarduten du seigarrenak, sei oinarriak identifikatuz eta horietariko bakoitza eztabaidagai bihurtu, adibide eta bibliografiek osatuak. Azken atalak, berriz, ikasketa prozesua, curriculum eta ebaluaketaren inguruko teoriak portafoliosaren kontzeptuarekin aztertzen du.

Edonola ere, liburuaren egilea ondo jabetuta dago portafoliosaren erabilera sor ditzakeen arazoez, are gehiago kuantitatibo kutsuko tradizioak

lehenasuna duen bitartean. Bere ekarpena ohiko ebaluaketa sistemen aurrean planteatu daitekeen alternatibaren artean kokatu behar da eta, konstruktibismoaren babesa pean, irakaslearen papera, talde lana, irakasle eta ikaslearen arteko elkar-lana eta antzeko gaiez etengabe gogoetak egiteko aukera ematen digu, ikasketa prozesua modu eraginkorragoa gauza dadin. Inor ez da harritik Dewey, Vygotsky, Bruner... liburu honen konzeptualizazio oinarrian ikusteaz.

Bukatzeke, liburua irakaslearen prestakuntzaz dihardutenentzat, etorkizuneko irakasleentzat ere neurri batean, hezkuntza ikerlarietzat eta, oro har, ikasketa eta ebaluaketa mota hau erabiltzeko aukera dutenentzat zuzenduta dagoela esan behar da. Hala ere, oso lagungarria litzateke ekarpen honekin batera, testuinguru ezberdinetan aplikatu daitezkeen diseinu ezberdinen berri emango baligu, oso ezberdinak bai dira hauek ikasgaiaren arabera, zein mailetakoak diren ikasleak eta abar. Gisa honetako ekarpenak iritsi bitartean, erreferentzia interesgarriak aurki daitezke egileak eskaintzen duen bibliografia osatuan.

*J.M. Mues*

## GARCÍA DAUDIER (2005)

*Psicología y feminismo*. Madril: Narcea.

Psikologiaren memoria historikoan dagoen hutsunetako bat betetzera dator liburu hau. Azken batean, Psikologian aitzindariak izan ziren emakumeen ahaztutako historia agertzen ditu autoreak. Horretarako guztirako, psikologian doktorean den eta Rey Juan Carlos Unibertsitateko irakaslea den García Dauder autoreak, 1879tik 1930era bitarteko belaunaldia hartu du aztergai. Modu horretan, garai hartako emakume psikologoek zer nolako funtzioa bete zuten aztertzen du liburuak; batez ere, psikologiaren instituzionalizazioaren lehengo urratsetan, zein diziplinari egin zizkioten ekarpenetan; ahaztu gabe, jakina, bizi izan zuten genero bazterketa. Horrexegatik, liburuaren gai gakoetako bat da emakume horiek izan zituzten bazterketa mekanismoak aztertzea, eta horien aurrean zer-nolako estrategiak abiatu zituzten ikustea. Horrela, emakume psikologoek jasan zituzten bazterketa mekanismoak anitzak eta askotarikoak izan ziren: muga ideologikoak, muga instituzionalak, femeninoa zenaren azpibalorazioa; eta batez ere ezkontza eta karrera zientifikoa ideian arteko talka ideologikoa. Azken horrek traba handia izan zen: garai hartako gizartearentzat emakumea zientzialaria izatea bere horretan kontraesankorra zen; izan ere, emakumeak zirelako ez ziren zientzialari arruntak, eta zientzialari gisa ez ohiko emakumeak ziren.

Edonola ere, liburuak ondo asko azaltzen digu zein erresistentzia mekanismo sortu zituzten emakumeok, indibidualak nahiz kolektiboak. Hori

nabarmen agertzen da emakume psikologoek ekarpen zientifikoari buruzko kapituluan, non Mary Whiton Calkinsen, Mary Thompson Wooleyen, Leta Stetter Hollingworthen edota Jessie Taften adibideak aipatzen diren. Horietako batzuk emakumeen ustezko gutxiagotasunari aurre egin zioten, sostengu eta erresistentzia sareak sortuz eta antolatuz, besteak beste.

Liburuaren amaieran garai hartako Psikologia eta Feminismoaren arteko loturak aztertzen ditu: nola eragin zuten emakumeek sortu zituzten korronte eta pentsamendu psikologikoak emakumeen beraien emantzipazio prozesuetan; eta nola eragin zuen emakumeen presentziak oro har, diskurtso zientifiko-psikologikoen egitura.

Egiari zor autoreak ahalegin berezia egiten du Psikologian emakumeek eduki duten papera, funtzioa eta zeregina birkokatzeke; baita Psikologiaren hainbat alor eta ikuspegi emakume zientifikoek begietatik ikusteko.

A. Huegun Burgos

SPERBER, D. (2005)

*Explicar la cultura. Un enfoque naturalista.* Madril: Morata

Dan Sperber Pariseko «*L'Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales*»eko kidea dugu. Azken hamarkada hauetan giza eta kognitibo zientzien esparrua lantzen ari den ikerlaria. Bere lehen idatziak *Le Structuralisme en anthropologie* (Seuil 1968/1973), *Le Symbolisme en général* (Hermann 1974), *Le Savoir des anthropologues* (Hermann 1982), eta *La Contagion des Idées* (Odile Jacob 1996) izan ziren. Hiru liburu hauetan errepresentazioen epidemiologiaren izenpean kulturaren kontzepzio naturalista garatu zuen. Bere oinarritzko iritzien artean aipa ditzakegu batzuk. Adibidez, ideiak transmititu daitezke eta, batetik bestera pasa ondoren zabaldu egiten dira. Zenbait ideia —erlijio sineskerak, sukaldeko errezetak, hipotesi zientifikoak, esate baterako— populazio osoetara iritsi daitezke, bertsio desberdinetan eta era iraunkorrean gainera. Horrek esan nahi du kultura deitzen dugun hori ideia kutsakorrez osatua dagoela. Giza populazioa irudipen mentalez osatua dago. Irudipen horiek gizarteko kideen artean sortutakoak dira. Batzuk iraupen luzekoak, eraikuntzak adibidez, eta galkorrak edo iraupen laburrekoak beste asko, mintzaldiaren soinuak esate baterako.

Kultura esplikatzeak esan nahi du argitzea zergatik eta nola dauden kutsakorrak diren ideiak. Horrek eskatzen du benetako *irudikapenen epidemiologia*. Epidemiologia grezierazko *epidemia* hitzetik dator. Hitz honek esanahi desberdinak ditu baina gaur hedatuena zenbait gauzen etorrera eta egonaldia adierazten du. Etortzen eta geratzen diren gauza horiek izan daitezke euria, gaixotasunak eta zenbait kasutan ohiturak ere. Aspalditik eman

da gaitzen zabalkundea ideiarenekin konparatzea. «Kutsadura» hitza metafora moduan erabili ohi izan da egoera mentalei aplikatzeko.

Epidemiologiaren erabilera eredu argitzaile bezala eklektikoa da. Eredu hau genetikan, ekologian eta gizarte psikologian ere erabilia izan da. Sperb-ek dionez horrexegatik, bere orokortasunagatik eta eklektizismoagatik, alegia, hautatu du epidemiologia hitza. Kulturaren ikuspegi naturalistak inguruneko fenomenoak eta fenomeno mentalak bateratuak kontuan hartu behar dituelako.

Liburua sei kapitulutan banatua dago. Kapitulu bakoitza egileak berak dioenez bere azken hamar urte hauetako etapa desberdinetan idatzita daude. Baina bere ustez, proiektu bakar baten atala kontsideratzen ditu.

Lehen kapituluan «*Nola izan benetako materialista antropologian*» irudikapenen epidemiologia hori ikuspuntu filosofiko batetik aurkezten du. Gizarte zientzietan jarrai daiteke eredu naturalista, baina beharrezkoa da birpentsatzea eremua aztertzeko erabiltzen ditugun kategoriak.

Bigarren kapituluan «*Irudikapen kulturalak interpretatu eta argitu*» gizarte zientziaren ikuspegitik lantzen du proiektua. Antropologian erabili daitezkeen ulermen motak aipatzen ditu. Batez ere, esplikazio interpretatiboak eta kausalak egiaztatzen ditu. Proiektu epidemiologikoa beste esplikazio kausalen moten artean kokatzen du.

Hirugarren kapituluan «*Antropologia eta psikologia: irudikapenen epidemiologiarantz*» aurreko kapituluetan sartutako irudikapenen epidemiologiaren ideia orokorra zabaltzen du.

Laugarren kapituluan «*Usteen edo sinesteen epidemiologia*» deituriko kapitulu honetan garatzen duen ideia nagusia zera da: psikologia garrantzitsua izan daitekeela antropologiarentzat eta alderantziz ere antropologia psikologiarentzat, gizarteko zenbait arazoei aurre egiteko.

Egilearen ustez hurrengo bi kapituluak dira zailenak eta konplexuenak. Ez da erraza irudikapenen epidemiologiaren ikuspegiaren topatzen ditugun zenbait zailtasun argitzea.

Horrela ba, bosgarren kapituluan «*Hautaketa eta erakarpeta bilakaera kulturalen*» bilakaera kultural hori moldatzeko era diferentiaz hitz egiten du.

Seigarren eta azken kapituluan batez ere ikuspegi natibisten ikuspuntuak eta adimenaren aldatzeko malgutasunaz hitz egiten dutenenak aurrez-aurre jartzen ditu azkenean, bien ekarpenekin geratzeko.

Liburua, bere ideia eztabaidagarriekin, interesgarria ikusten dut iraultza kognitiboak gure kulturaren ulermenerako izan duen eragina baloratzeko.

*J. R. Oiartzabal*

GONZÁLEZ MANGAS, Antonia eta Gaspar (2005)

*ACCESS Office 2003. Guía rápida.* Madril: Thomson - Paraninfo.

Argitaletxe ezagun honek ohituta gauzka azken urteotan azaldutako sistema operatiboak, programak eta abarren inguruko liburuak plazaratzen eta garai batean *Access Office 2000* bazen ere (beste askoren artean, jakina: *Windows 2000 Profesional*, *Word Office 2000*, *Visual Basic 6* eta abar), oraingo honetan *Access Office 2003* bertsio berria da esku artean jartzen diguna eta irakurleak pentsa dezakeenez, *Excel Office 2003*, *Word Office 2003*, *Outlook Office 2003*, *Power Point Office 2003*, *Publisher Office 2003* eta gisakoak aurkituko ditu bilduma honetan, baita *Flash Mx 2004*, *Dreamweaver Mx 2004* edo *Fireworks Mx 2004* ere.

Liburuak, «guía rápida» sailekoa izanda ere, badu mardultasuna (300 orrialde inguru) baina, hori bai, eutsi egiten dio betiko egiturari, atal dezente planteatuz (10 hain zuzen) eta atal bakoitzean azaldutakoa irakurleari lantzeko aukera eskainiz, ariketa batzuk proposatu egiten dira, laburpen gisa. Baina ariketak ez dira atal bukaerarako bakarrik uzten, atal bakoitzean ere agertzen dira ikur batzuk irakurleak praktika ditzan ikusitakoa; ariketa eta praktika hauek liburuarekin batera datorren CD-ROMak dakartza eta ukatzerik ez dago *Access 2003*an bere burua trebatu nahi duenarentzat oso tresna estimagarria dela honako hau, ariketez gain irtenbideak ere eskaintzen dituelako eta modu honetan, MOS agiria (Microsoft Office Specialist deiturikoa) eskuratzeko egoeran egongo da.

Atalak era honetara daude: lehendabizikoa sarrera gisa uler daiteke, datu-base kontzeptuaren inguruan jarduten baitu. Bigarrena datu-baseak sortzera zuzenduta dago. Hirugarrena datuak sartu eta editatzera. Laugarrena, taulak erlazionatzera zuzendutakoa, motzagoa gelditzen zaigu, bosgarren eta bereiziki seigarrenean zabal jarduteko gero, egin daitezkeen kontsultak planteatuz bosgarrenean eta formularioak aztertzen seigarrenean. Zazpigarrena azken honen pean gelditzen da «subformularioak» planteatzen eta azken hiruak txostenak, inprimaketa eta kanpoko datuak, Internet, dira jorratzen diren gaiak.

Argitaletxe honen ezaugarriak diren liburu hauetarako argitasuna eta praktikotasuna honako honetan ere ematen da eta orri txukunak irudi argigarriekin hornituta daude, pantailetan ager daitezkeen figurak, taulak eta gainontzekoak grafikoki erakusten, arazoak ulertzeko dezente errazten bidea.

*J.M. Osinaga*

GONZÁLEZ MANGAS, Antonia eta Gaspar (2005)

*Powerpoint Office 2003. Guía rápida.* Madril: Thomson - Paraninfo.

*Access Office 2003*-rako esandakoak balio digu hemengo erreferentzia izateko eta modu berezian, alde formala, honek ere eutsi egiten baitio betiko egiturari, atal dezente planteatuz (9 kasu honetan) eta atal bakoitzean azaldutakoa irakurleari lantzeko aukera eskainiz, ariketa batzuk proposatuz, laburpen gisa. Eta aurrekoaren bezala atal bakoitzean agertzen dira ikur batzuk irakurleak praktika ditzan ikusitakoa; ariketa eta praktika hauek liburuarekin batera datorren CD-ROMak dakartza. *Access 2003*an bezala, oraingo honetan ere bere burua trebatu nahi duenarentzat oso tresna estimagarria izango du hemen, ariketez gain irtenbideak ere eskaintzen dituelako eta modu honetan, MOS agiria (Microsoft Office Specialist deiturikoa) eskuratzeko tenorean egon daiteke.

Baina mamiari helduz, derrigorrezko sarreraren ondotik aurkezpenaren diseinuari ekiten diote bigarren atalean (nola sortu aurkezpen berriak, plantilak, nola gorde, nola ireki, nola errekuperatu galdutakoren bat...) eta gaitontzekoetan aurkituko dugun bezalaxe, hemen ere atalaren bukaeran praktika batzuk proposatzen dira laburpen gisa.

Hirugarren atala diapositibekin lan egiteko erei zuzenduta dago, bi azpiatal nagusitan banaturik PowerPoint-en ikusteko erak eta diapositibekin egin daitezkeen jokoak (sortu, deuseztatu, bikoiztu, aukeratu, lekuz aldatu, ezkutatu...). Itxura kontrolatzeko tresnei zuzenduta dago laugarren atala eta bertan diseinuzko plantilak, patroiak, kolore konbinaketa, diapositiben oinak, hondoak... Horrela luzea den bosgarren atalari heltzen diote: diapositiba baten osagaiak; testuarekin hasten dira lehendabizi (sortu, gehitu, formato, binetak...), taulak (taula arrunta, konplexua, aldaketak, gehitzeak, deuseztatzeak...), organigramak, marrazkiak, diagramak, WordArt, formak marraztea, musika, bideoak... atal mamitsua, beraz.

Behin diapositibak sortuak batetik bestera nola igaro, tartekak, animazioak, beste dokumentu baterako lotura, aldaketak eta abar jorratzen dira seigarren atalean, zazpigarrenean inprimatzekoari heltzeko, ohikoak diren azpiatalekin. Zortzigarrena diapositiben aurkezpenari zuzenduta dago: nola konfiguratu, nola hasi, aurkezpenak dirauen bitartean egin daitezkeenak (ezkutatutako diapositiba, oharrak, kontrolak, etenak...), aurkezpen pertsonalizatuak eta beste programei aurkezpenak bidali edota beste programetatik ekartzeko zer egin behar den zehazten du. Azken atala errebisioa eta aurkezpenak argitaratzea jorratzen ditu, web orriak sortuz, posta elektronikoren bitartez bidali eta antzekoak jorratuz.

Esan bezala, orriak txukunki daude eginak, irudi argigarriekin hornituta eta argitaletxe honen ezaugarriak diren liburu hauetarako argitasuna eta

praktikotasuna honako honetan ere ematen da, aipatutako CD-ROMa lagungarria izanda. Inoiz PowerPoint-a erabili ez duenarentzat oso liburu gomendagarria, baita inoiz erabili dutenak eta sakontzeko nahiak akuilatuta aurkezpen dotoreago eta osatuagoak egin nahi dutenentzat ere.

*J.M. Osinaga*

## **JASOTAKO LIBURUAK**

HANNAN & SILVER (2005)

*La innovación en la enseñanza superior.* Madril: Narcea.

KNIGHT, P.T. (2005)

*El profesorado de Educación Superior.* Madril: Narcea.